



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko abuztuaren 20a

82. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Azagrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (10. or.).
- Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (19. or.).

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

## Azagrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Azagrako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Azagrako Udalari buruzko fiskaliza- zio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
  - IV.1. Udalaren kontu orokorra (4. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (4. or.).
  - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera (4. or.).
- V. Finantza-egoeren orriak (5. or.).
  - V.1. Aurrekontuaren betetze-maila (5. or.).
  - V.2. Aurrekontu-emitza (6. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (6. or.).

V.4. Egoeraren balantzea (7. or.).

#### VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (8. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (8. or.).

VI.2. Langileak (8. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (8. or.).

VI.4. Inbertsioak (8. or.).

VI.5. Transferentzia arruntak (9. or.).

VI.6. Diru-sarrerak (9. or.).

VI.7. Diruzaintza eta zorpetzea (9. or.).

VI.8. Inbentarioa eta ibilgetua (9. or.).

VI.9. Hirigintza (9. or.).

VI.10. Gomendioen ezarpena (10. or.).

#### I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Azagrako Udalaren 2006ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Cascanteko Udalak 33,2 km<sup>2</sup>-ko azalera du. 3.793 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Entitatea	2006 (eurotan)		(1)
	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	
Udala	2.901.313	3.165.240	23

1) 2005eko plantilla organikoko langileak dira; izan ere, 2006an, Azagrako Udalaren plantilla organikoa ez zen ez onetsi ezta NAOn argitaratu ere.

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

a) Azagra, Andosilla, Cárcar eta San Adriángo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean.

b) Goi Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatean.

c) Erdialdeko Erriberako Kirol Mankomunitatean.

Azagrako Udalari aplikatzekoa den araubide juridikoa batez ere honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.

- 10/1998 Foru Legea eta 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoak arautzen dituztenak.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- 35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa; eta, laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezko-tasunari eta finantza egoerari buruz dugun iritzia. Bosgarren atalean jaso dugu udalak prestaturiko finantzen egoera-orrien laborpen bat, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloan arabera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Azagrako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdi esanguratsu guztietan, entitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioa, bai eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak; halaber, orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2006an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2006ko abenduaren 31n.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Azagrako Udalaren kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta udalaren diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

Udalak aplikaturiko kontabilitate-araubidea jasota dago 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedurak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolako alderdi nabarmenenak.

Txostenean jasotzen dira udalaren kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak.

#### IV. IRITZIA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, Lodosako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardura, baita bere edukiarena ere, udalarena da, eta horiei buruzkoak txosten honen V. atalean daude jasota.

Gure iritzia azaldu aurretik, iruditzen zaigu ohararazi behar dela, udalaren kudeaketa guztian eragina baitauka, egoera berezi bat dagoela udalaren aurrekontuaren eta kontabilitatearen kudeaketan. 2006an, aurreko ekitaldiko aurrekontua luzatu zen, eta kontabilitatea atzerapen handiz egiten da. Horren ondorioz, jarduera ekonomiko ia guztia gauzatzen da kontabilitatearen eta aurrekontuen arloko inolako kontrolik egin gabe. Hortaz, esan daiteke kontabilitatea mugatzen dela eginiko jarduera a posteriori aurkeztera.

2006an, Azagrako Udalean, hiru pertsona desberdin aritu dira kontu-hartzailatza eginkizunetan, eta hori ez da batere lagungarria izan udalaren jarduera ekonomikoaren kudeaketa eta jarraipen egokirako.

##### IV.1. UDALAREN KONTU OROKORRA

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1998koa da, eta oraindik eguneratu gabe dago; horregatik, egoera-balantzeko ibilgetuaren saldoak ez du oinarri dokumentalik.

- Zenbait gastu-kapitulutan, gainditu egin dira zeuden kredituak; hain zuzen ere, transferentzia arruntan gastu-kapituluan 48.882 eurotan gainditu da kreditua, eta inbertsioenean, berriz, 15.301 eurotan.

Ondoko lerrokadetan aipaturiko ondorioak alde batera utzita, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen du alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa eta abenduaren 31ko ondare-egoera. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauak jarraituz.

##### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren eta bere erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioak oro har legezkontasun printzipioa jarraitu duela, salbu eta ez dela aurrekontuaren behar bezalako kontrolik eta kontabilitate-jarraipenik egin, antolamendu eskasa eta barne-kontrol ahula dela kausa.

##### IV.3. 2006KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA.

Azagrako Udalak 2006an izan zuen aurrekontua 2005ekoa izan zen, luzatua.

Betetako diru-sarrerak 3.165.260 euro egin zuten, eta gastuek, aldiz, 2.901.313 euro; bi kopuru horien arteko aldea, behin finantzaketa-desbideraketak kenduta, da 130.655 euroko aurrekontu-emaizta doitua.

Jasotako transferentziek, diru-sarrera guztien ehuneko 51 egiten dute: diru-sarrera arruntan ehuneko 39 eta kapitalekoen ehuneko 12.

Gastuei dagokionez, ehuneko 40 izan da ondasun eta zerbitzu arruntak erosteko, ehuneko 34 langileen ordainsarietarako eta ehuneko 14, berriz, inbertsioetarako.

2006ko abenduaren 31n, zor bizia 1.434.559 eurokoa da.

183.260 euroko aurrezki garbia sortu da, gastu arruntak eta finantza-zama finantzatu ondoren.

2006ko ekitaldi honetan, azken bost urteotan lehenbizikoz, udalak zorpetzeko ahalmena du, horretarako ahalmena ehuneko 9koa baita eta muga ehuneko 16koa delako.

Hala ere, udalak gastu orokorretarako duen diruzaintzako gerakina negatiboa da; 810.000,68 euro, hain zuzen. Egoera hori konpondu egin beharko litzateke, horretarako Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikuluan ezarritako neurriak aplikatuz; horrela, gainera, likidezia problemak izan ditzake udalak.

## V.I. AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebehargarbiak	Betetakoa (%)	Ordainketa	Ordaindutakoa (%)	Ordaintzeko
1 Langile-gastuak	1.015.837	-	1.015.837	985.492	97	964.955	34	20.537
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	1.143.125	32.788	1.175.913	1.152.498	98	704.796	40	447.702
3 Gastu finantzarioak	53.450	-	53.450	44.553	83	38.300	2	6.253
4 Transferentzia aruntak	83.872	-	83.872	132.754	158	121.562	5	11.192
6 Inbertsio errealak	-	377.838	377.838	393.139	104	366.898	14	26.241
7 Kapital-transferentziak	-	-	-	-	-	-	-	-
8 Finantza-aktiboek aldaketa	-	-	-	-	-	-	-	-
9 Finantza-pasiboek aldaketa	196.031	-	196.031	192.877	-	169.424	7	23.453
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>2.492.315</b>	<b>410.626</b>	<b>2.902.941</b>	<b>2.901.313</b>	<b>100</b>	<b>2.365.935</b>	<b>100</b>	<b>535.378</b>

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubidegarbiak	Betakakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobrantzeko
1 Zuzeneko zergak	686.464	-	686.464	690.406	101	626.643	22	63.763
2 Zeharkako zergak	200.000	-	200.000	145.794	73	134.990	5	10.804
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	473.232	-	473.232	479.690	101	458.155	15	21.535
4 Transferentzia aruntak	1.083.147	40.908	1.124.055	1.220.847	109	1.158.765	39	62.082
Ondarezko diru-sarrerak eta hemi-lurren aprob.	756.028	-	756.028	154.697	20	139.888	5	14.809
6 Inbertsio errealen besterentzea	165.000	26.097	191.097	102.000	53	-	3	102.000
7 Kapital-transferentziak	219.742	226.895	446.637	371.826	83	371.381	12	445
8 Aktibo finantzarioak	-	-	-	-	-	-	-	-
9 Pasibo finantzarioak	-	116.726	116.727	-	-	-	-	-
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>3.583.613</b>	<b>410.626</b>	<b>3.994.240</b>	<b>3.165.260</b>	<b>79</b>	<b>2.889.822</b>	<b>100</b>	<b>275.438</b>

## V.2. AURREKONTU-EMAITZA

	2006	2005
Aitorturiko eskubideak	3.165.259,63	3.031.878,14
(Aitorturiko betebeharrak)	2.901.313,15	3.490.460,18
<b>Aurrekontu-emaiza</b>	<b>263.946,48</b>	<b>-458.582,04</b>
(Finantzaketaren desbideraketa positiboak)	133.291,00	349.818,75
Finantzaketaren desbideraketa metatu negatiboa	0,00	0,00
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko kredituak	0,00	0,00
Aurreko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko betebeharrak	0,00	0,00
<b>Aurrekontu-emaiza doitua</b>	<b>130.655,48</b>	<b>-808.400,79</b>

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2006	2005
Diru-sarrerren aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua	275.437,37	252.844,96
Diru-sarrerren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	445.534,42	382.140,02
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	568.713,91	44.607,28
Ordainketen itzulketak	0,00	
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	-410.849,95	-353.646,65
(Aplikatzeko dauden diru-sarrerak)	-1.269,27	-0,88
<b>Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>1.288.416,43</b>	<b>325.944,73</b>
Gastuen aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua	535.378,49	976.797,89
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	384.467,61	250.064,73
Diru-sarrerren itzulketak	90,00	0,00
(Aplikatzeko dauden gastuak)		
Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.551.999,83	94.406,98
<b>Ordaintzeko dauden betebeharrak.</b>	<b>2.471.935,93</b>	<b>1.321.269,60</b>
<b>Diruzaintzako funts likidoak</b>	<b>784.368,77</b>	<b>-65.901,86</b>
Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak	0,00	26.684,16
<b>Diruzaintza-gerakina, orotara</b>	<b>-810.000,68</b>	<b>-1.034.542,57</b>
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta		
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-810.000,68	-1.034.542,57

## V.4. EGOERAREN BALANTZEA

## AKTIBOA

Izena	2006	2005
1. Ibilgetu materiala	5.581.468,43	5.321.654,74
2. Ibilgetu ez-materiala	27.329,22	27.329,22
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	1.691.322,56	1.659.996,97
4. Herri ondasunak	738.889,12	738.889,12
5. Finantza-ibilgetua	0,00	0,00
<b>A) IBILGETUA</b>	<b>8.039.009,33</b>	<b>7.747.870,05</b>
7. Izakinak	0,00	0,00
8. Zordunak	1.300.168,71	688.498,50
9. Finantza-kontuak	784.368,77	-65.901,86
10. Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak.	0,00	0,00
11. Aplikatzeko dagoen emaitza	-4.394.276,98	-4.201.092,80
<b>C ZIRKULATZAILEA</b>	<b>-2.309.739,50</b>	<b>-3.578.496,16</b>
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>5.729.269,83</b>	<b>4.169.373,89</b>

## PASIBOA

Izena	2006	2005
1. Ondarea eta erreserbak	4.219.442,64	4.026.258,46
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	429.197,61	193.183,07
3. Kapital-dirulaguntzak	1.556.596,04	1.193.999,69
<b>A FUNTS BEREKIAK</b>	<b>6.205.236,29</b>	<b>5.413.441,22</b>
4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	1.434.558,93	1.627.435,59
<b>C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>1.434.558,93</b>	<b>1.627.435,59</b>
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.482.482,31	1.329.588,99
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzeak eragindako doitzeak	1.269,27	0,88
<b>D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>2.483.751,58</b>	<b>1.329.589,87</b>
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>10.123.546,80</b>	<b>8.370.466,68</b>

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bete behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- *Berriro diogu: hobetu egin beharko lirateke kontabilitatearen prozedurak, barne-kontrola eta jarraipena.*

- *Aurrekontua eta horren likidazioa epean prestatu eta onetsi beharko lirateke, halako moduz non kudeaketarako baliagarria izango litzatekeen.*

- *Kontu orokorra legez ezarritako epean onetsi beharko litzateke.*

- *Kontabilitatea eguneratua eraman beharko litzateke, halako moduz non kudeaketarako baliagarria izanen litzatekeen eta, era berean, lagungarria gertatuko litzatekeen erabakiak hartzeko eta aurrekontuaren betetzea kontrolatzeko.*

- *Gastu guztiek, salbuespenik gabe, izan behar dute, egin aurretik, kasuan kasuko baimena, eta baimena emateko beharrezkoa izanen da behar adina aurrekontu-kreditu egotea.*

- *Aitorturiko betebeharrak eta eskubideak sor-tzapenaren printzipioaren arabera erregistratu beharko lirateke, eta haien izaeraren arabera.*

### VI.2. LANGILEAK

Langile-gastuak 985.492 eurokoak dira: udalaren gastu guztien ehuneko 34.

2006rako plantilla organikoa ez da ez onetsi, ez argitaratu.

Beraz, gure gomendioa da:

- *Araudiak ezarritako datetan onestea eta argitaratzea plantilla organikoa.*

- *Langile-espeditanteetan, eguneratuta edukitzea familia-egoerari buruzko zinpeko aitortenak.*

### VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Gastu arruntak 1.152.498 euro egiten dute. Udalaren gastu guztien ehuneko 40 da hori.

Hona gure gomendioak:

- *Zerbitzuak emateko kontratuetan, isilbidezko luzapenik ez egitea baldin eta Kontratuei buruzko Foru Legean laguntza-kontratuetarako ezarritako sei urteko gehieneko epea gainditzen bada.*

- *Behar diren aurrekontu-aldaketak egitea aitorturiko betebeharrak behin betiko aurrekontuetara egokitzeko.*

- *Indarrean diren kontratuen kontrol gaurkotua izatea.*

### VI.4. INBERTSIOAK

Hurrengo obraren kontratazio-espeditantea aztertu da; obraren onarpen-akta 2006koa da, nahiz eta izapideak 2004an hasi ziren.

(euroak, milakotan)

Espedientea	Prozedura/adjudikatzeko modua	Adjudikazioaren zenbatekoa	Aitorturiko betebeharrak
Udal bulegoak	Irekia, lehiaketa	437	336
<b>Total</b>			<b>336</b>



Espedientea berrikusita, ondorioa da, oro har, araudia errespetatu dela.

#### VI.5. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

2006ko ekitaldian zehar, udalak onetsi zuen, osoko bilkuran, dirulaguntzak ematea zenbait talderi eta elkarteri, baina ez dago diruz lagundutako gastuei buruzko ziurtagiririk. Nafarroako Foru Komunitateak Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen osoko bilkuraren erabaki horren aurka; ebatzi da udalaren erabaki hori ez zela zuzenbidearen arabera izan.

Udalak epaia bete du, epaian bertan ezarritako moduan.

Hona gure gomendioa:

- *Transferentzia arruntak egiteko eta justifikatzeko, betetzea udal ordenantzak ezarritako baldintzak.*

#### VI.6. DIRU-SARRERAK

- *Ordenantza fiskalak onestea aplikatu behar direnoko ekitaldiaren hasiera baino lehenago.*

- *Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren (EIOZ) behin betiko likidazioa egitean, oinarri hartzea zein izan den eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua.*

- *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak egitea.*

- *Agentzia Exekutiboarekin kontratu egunera-tua izatea, eta isilbidezko luzapenak saihestea baldin eta legedian ezarritako epeak gainditzen badituzte.*

- *Agentzia Exekutiboari berankorren saldoak igortzea ordenantza fiskaletan ezarritako epeetan, eta, horrela, kobrantzen kudeaketa hobea bultzatzea.*

#### VI.7. DIRUZAINZTA ETA ZORPETZEA

2006ko ekitaldian, diruzaintzako mailegu bat hitzartu zen, 800.000 eurokoa. Kontu-hartzailetzak, aldez aurretik, ohartarazi zuen horrela gainditu egingo zirela legediak ezarritako mugak; arrazoi hori oinarri, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak ebatzi zuen mailegu hori ez zela zuzenbidearen arabera izan.

Azagrako Udalak eta San Adriángo Udalak banku-kontu bat dute uren araztegiko gastuak kudeatzeko. Azagrako Udalak, bere kontabilitatean erregistratuta agertzen denez, 2.425,37 euroko ekarpena egin zuen banku-kontu horretara 2000. urtean. Kontu horrek 2006ko abenduaren 31n

zuen saldoa zen 13.315,27 eurokoa, eta ez dago saldo hori justifikatzeko nahikoa agiri.

Udalak Viviendas de Navarra SA-k emaniko bi mailegu ditu erregistratuta; mailegu horien zor biziak 25.620,34 euro egiten du, baina horren zehaztasuna ezin izan da egiaztatu, ez baitago hori justifikatzen duen agiririk. Udalak, dagoeneko, eskatu du.

- *Errespetatzea diruzaintzako operazioak hitzartzeari buruzko legedia.*

- *Funtsen xedapena baterako sinadurarekin egitea; bi sinadurarekin, gutxienez.*

- *Viviendas de Navarra SA-k eman zituen bi maileguen euskarri den dokumentazioa osatzea; mailegu horiek erregistratuta duten zor biziak 25.620,34 eurokoa da guztira.*

- *San Adriángo Udalarekin batera duen banku-kontua argitzea, eta, behar izanez gero, titular izateari uztea, kontuaren kudeaketa San Adriángo Udalak egiten baitu.*

#### VI.8. INBENTARIOA ETA IBILGETUA

- *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri ondasunak– eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *1990eko udal inbentarioa gaurkotzea eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin lotuta egotea erraztuko duena.*

#### VI.9. HIRIGINTZA

Azagrako Udalaren Udal Planaren behin betiko onspena NAO 2007ko martxoan argitaratu zen; hasierako onspena 1998ko urtarrilean argitaratu zen.

Plan hori tramitatzen ari zela, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea onetsi zen.

Horiek horrela, hona hemen gure gomendioak:

- *Udal plana egokitzea, oraindik egokitzapenik egin behar izanez gero, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritakora.*

- *Lurzoruaren Udal Ondarea eratzea eta kudeatzea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, sarrerak eta irteerak erregistratuz, bai lursailenak bai eskudiruarenak, eta indarreko araudian ezarritako xedeetarako erabili direla frogatzea.*

**VI.10. GOMENDIOEN EZARPENA**

Txosten hau idazketa-fasean zegoela, udala honako gomendio hauek aplikatzen hasi da:

- *Agentzia Exekutiboarekin kontratu berri bat egin da.*
- *Viviendas de Navarra SA-k emaniko maileguen dokumentazioa osatzeko saioa egiten ari da.*

• *San Adriángo Udalarekin hitz egin da eta bankuari eskatu zaio dokumentazioa bi udalek batera duten banku-kontua argitze aldera.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko apirilaren 2an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## **Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

Txosten exekutiboa edo laburpena (11. or.).

- I. Sarrera (11. or.).
- II. Helburua (12. or.).
- III. Norainokoa (12. or.).
- IV. Iritzia (12. or.).
  - IV.1. Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2007ko ekitaldiko kontu orokorra (12. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (13. or.).
  - IV.3. 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera (13. or.).
  - IV.4. 2006ko txostenaren gomendioen jarraipena (13. or.).

#### **V. Finantza-egoeren orriak (14. or.).**

V.1. 2007ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (14. or.).

V.2. 2007ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza (15. or.).

V.3. 2007ko ekitaldiko diruzaintza-gerakin bateratua (15. or.).

V.4. 2007ko ekitaldiko egoera-balantze bateratua (16. or.).

#### **VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (17. or.).**

VI.1. Langileak (17. or.).

VI.2. Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketa (17. or.).

VI.3. Inbertsioak (17. or.).

VI.4. Diru-sarrerak (18. or.).

VI.5. Inbentarioa-lbilgetua (18. or.).

VI.6. Patronatuak (18. or.).

VI.7. Hirigintza (18. or.).

Eranskina: 2007ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

**TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENA**

Nafarroako Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren 2007ko ekitaldika fiskalizatu du. Udalak 13.000 biztanle baino gehixeago dauzka.

Zizur Nagusiko Udalak hiru erakunde autonomo dauzka: Kirol Patronatua, Kultur Patronatua eta Musika Patronatua.

Udalaren 2007ko kontu orokorrak alderdi esanguratsu guztietan bere gastuetako eta diru-sarreretak aurrekontuen likidazioaren eta egoera ekonomiko eta ondarezkoaren irudi leiala adierazten duela, 1995ekoa den inbentarioa alde batera utzita.

Legezkotasun-analisiari dagokionez, txostenean adierazten da udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa araudi indarduna errespetatuz gauzatzela.

2007an, udalak 30,6 milioi euro gastatu eta 24,7 milioi euroko diru-sarrerak izan zituen. Kopu-

ru horietan sartuta daude aipaturiko erakunde autonomoei dagozkienak.

Gastuetan, inbertsioak dira nabarmentzekoak, 21,3 milioi euro egiten baitute. Ondoren, gastu arruntetako eta zerbitzuetako gastuak datoz, 4,8 milioi euroekin, eta 120 langileren ordainsariei dagokien 4,1 milioi euroko kopurua.

Datu bateratuen arabera, aurrekontu-emaizta doituak 3,17 milioi euroko superabita agertzen du. Udalak ez du epe luzeko zorrik.

**I. SARRERA**

Bere jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren eta haren erakunde autonomoen –Kirol Patronatua, Kultur Patronatua eta Musika Patronatua– 2007ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Zizur Nagusiko Udalak 13.189 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2007ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2007-12-31n
Udala	29.934.002,14	23.967.126,38	107
Kirol Patronatua	535.073,17	536.365,62	0
Kultur Patronatua	472.173,93	473.340,34	0
Musika Patronatua	385.103,57	408.935,16	13
<b>Guztira</b>	<b>30.630.377,36</b>	<b>24.689.792,05</b>	<b>120</b>

**Oharra:** guztizko zenbatekoa bateraturik dago, eta hortaz, ez dator bat agerturiko xehetasunen baturarekin.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.

- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- 35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa eta, laugarrenean, kontu orokorrari, legezkontasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean jaso ditugu Zizurko Udalaren eta bere erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratu nagusiak, eta, seigarren eta azkenean, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloka.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2007ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zizur Nagusiko Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregularitasun-fiskalizazioa (finantzarioa eta legezkontasunari buruzkoa) egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioa, haren aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2007an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2007ko abenduaren 31n.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren kontu orokorraren fiskalizazioa egin du -udalarena berarena eta haren erakunde autonomoena hartzen ditu-.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.

- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen egoera-balantzea.

- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen galera eta irabazien kontua.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen balantze bateratuak.

- Oroitidazkia.

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek badute kontabilitate orokorra ere, udalean ezarritako ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

## IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Zizur Nagusiko Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzi honetara iritsi gara:

### IV.1. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2007KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da eta gaurkotu gabe dago. Hala ere, ondasunen katalogatze, baloratze eta kontrol lanak egiten jarraitzen da.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioak alde batera utzita, Udalaren 2007ko ekitaldiko

kontu orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatua eta ulertua izateko beharrezkoa eta nahikoa den informazioa biltzen du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta orokorki onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araei jarraituz.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke entitatearen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezotasun printzipioari jarraituz gauzatu dela.

#### IV.3. 2007KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA.

Hasierako aurrekontu bateratua 27,1 milioi eurokoa da, eta behin betikoa, 40,7 milioi eurokoa. Gastuen betetze-maila % 75ekoa du, eta diru-sarrerena, % 61ekoa.

2007ko ekitaldian behera egin du gastuen betetze mailak eta diru-sarerenak, aldiz, gora.

Baliabide bateratuen % 39 kapital transferentzietatik dator. Kapitulu horren betetze-maila ehuneko 55 da.

Diru-sarreraren ehuneko 17 transferentzia arruntetatik heldu da; haietan, izan ere, exekuzioa ehuneko 104koa izan da.

Gastuei dagokienez, horien ehuneko 70 inbertsio errealei dagokie eta horien betetze-mailak ehuneko 71 egiten du. Ohiko ondasunen erosketei eta langileen soldatei buruzko kapituluak aitorturiko gastuaren 29 egiten dute batera, eta bi kapitulu horien betetze-maila ehuneko 90 ingurukoa da.

Ekitaldiaren amaieran aurrekontu bateratuaren emaitza doituari 3,17 milioi euroko defizita ageri da.

2007ko abenduaren 31n ez dago epe luzeko zorrik.

Zizur Nagusiko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoerak honako ezaugarriak dauzka: zorpetzerik eza eta gastu orokorretarako diruzaintzako garrantzia, etorkizuneko ekitaldietako gastuak finantzatzeko likidezia, 5 milioi eurokoa. Halere, erabakiak hartzeko, kontuan hartu behar dira bai gastu errepikariak, bai errepikariak ez diren diru-sarrerak –esate baterako, EIOZa, banku-korrituak eta abar-, gastu korrontearen egitura egokia definitzeko.

#### IV.4. 2006KO TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Administrazio- eta kontabilitate-gomendio nagusietatik oraindik ere gauzatzeke dago ondasunen inbentarioa egiteari dagokiona.

## V.I. 2007KO EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindutakoa	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitorturiko guzt. gain. %
Langile-gastuak	4.587.219,43	0,00	4.587.219,43	4.090.435,20	4.012.262,32	78.172,88	89,17	13,35
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	5.187.433,57	88.365,72	5.275.799,29	4.776.473,19	4.477.876,86	298.596,33	90,54	15,59
Finantza-gastuak	2.312,00	0,00	2.312,00	1.976,15	1.976,15	0,00	85,47	0,01
Transferentzia arruntak	488.683,00	156.243,46	644.926,46	442.917,94	320.961,05	121.956,89	68,68	1,45
Inbertsio errealak	16.837.720,00	13.262.776,87	30.100.496,87	21.297.174,88	13.817.611,99	7.479.562,89	70,75	69,53
Aktibo finantzarioak	54.000,00	0,00	54.000,00	21.400,00	21.400,00	0,00	39,63	0,07
Gastuak, guztira	27.157.368,00	13.507.386,05	40.664.754,05	30.630.377,36	22.652.088,37	7.978.288,99	75,32	100

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreik.	Aitorturiko eskubideak	Kobratutakoa	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitorturiko guztiaren gaineko %
Zuzeneko zergak	2.379.400,00	0,00	2.379.400,00	2.316.513,54	2.153.424,06	163.089,48	97,36	9,38
Zeharkako zergak	3.000.000,00	0,00	3.000.000,00	4.699.970,15	4.524.839,62	175.130,53	156,67	19,04
Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	2.862.222,24	0,00	2.862.222,24	2.683.937,21	2.582.025,36	101.911,85	93,77	10,87
Transferentzia arruntak	3.964.938,04	0,00	3.964.938,04	4.110.295,66	3.912.431,31	197.864,35	103,67	16,65
Ondare bidezko diru-sarrerak	905.738,72	0,00	905.738,72	1.204.503,38	1.203.941,56	561,82	132,99	4,88
Inbertsio errealak besterentzea	1.095.369,00	0,00	1.095.369,00	94.995,64	94.995,64	0,00	8,67	0,38
Kapital-transferentziak	12.895.700,00	4.477.692,35	17.373.392,35	9.565.915,72	9.480.246,09	85.669,63	55,06	38,74
Aktibo finantzarioak	54.000,00	9.029.693,70	9.083.693,70	13.660,75	13.660,75	0,00	0,15	0,06
Diru-sarrerak, guztira	27.157.368,00	13.507.386,05	40.664.754,05	24.689.792,05	23.965.564,39	724.227,66	60,72	100

**V.2. 2007KO EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA**

<b>Kontzeptua</b>	<b>2007</b>	
Aitorturiko eskubide garbiak	24.689.792,05	
Aitorturiko betebeharrak garbiak	(30.630.377,36)	
<b>Aurrekontu-emaizta</b>		<b>(5.940.585,31)</b>
<b>DOITZEAK</b>		
Finantzaketaren desbideraketa positiboak	(64.292,66)	
Finantzazioaren desbideraketa negatiboa	9.160.417,25	
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	11.778,51	
<b>Aurrekontu-emaizta doituak</b>		<b>3.167.317,79</b>

**V.3. 2007KO EKITALDIKO DIRUZAINZTA-GERAKIN BATERATUA**

<b>Kontzeptua</b>	<b>2007</b>	
(+) Kobratzeko dauden eskubideak		3.174.573,93
(+) Aurrek. Diru-sarrerak: aurtengo ekitaldia	725.094,53	
(+) Aurrek. Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	273.979,73	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	2.421.473,27	
(-) Dirubilketa zaileko eskubideak	(225.387,42)	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	(20.586,18)	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak		(9.259.285,12)
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	(7.978.288,99)	
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	(195,34)	
(+) Diru-sareren itzulketa	(866,67)	
(+) Aplikatzeko dauden gastuak	0,00	
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	(1.279.934,12)	
(+) Diruzaintzako funts likidoak		38.015.762,60
(+) Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak		766.188,65
<b>= Diruzaintzako gerakina, orotara</b>		<b>32.697.240,06</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	645.350,83	
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	26.957.810,61	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	5.094.078,62	

## V.4. 2007KO EKITALDIKO EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## AKTIBOA

Deskribapena	2007	
IBILGETUA		55.501.468,09
Ibilgetu materiala	18.846.575,16	
Ibilgetu ez-materiala	339.539,16	
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	36.313.373,06	
Herri ondasunak	0,00	
Ibilgetu finantzarioa	1.980,71	
ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK		0,00
Deuseztatu beharreko gastuak	0,00	
ZIRKULATZAILEA		41.457.398,33
Izakinak	0,00	
Zordunak	3.420.547,53	
Kontu finantzarioak	38.036.841,80	
Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0,00	
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	0,00	
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>96.958.857,42</b>

## PASIBOA

Deskribapena	2007	
FUNTS BEREKIAK		87.678.985,92
Ondarea eta erreserbak	57.537.644,50	
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	18.014.681,27	
Kapital-dirulaguntzak	12.126.660,15	
ARRISKU ETA GASTUETARAKO PROBISIOAK		0,00
Homidurak	0,00	
EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK		0,00
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	0,00	
EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK		9.279.871,50
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	9.259.285,32	
Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	20.586,18	
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>		<b>96.958.857,42</b>



**VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMEN-  
DIOAK****VI.1. LANGILEAK.**

Udalaren langile-gastuak 4.090.435,20 eurokoak dira. Gastu guztien ehuneko 13 egiten dute, eta 2007an aitorturiko gastu arrunten ehuneko 44.

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Lorezaintzako bi langile kontratatzea.

- Udaltzaingoko lau kabo kontratatzea.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da indarreko araudia behar bezala bete dela, eta zuzen egin dela espedienteen kontabilitate- eta administrazio-jarraipena.

**VI.2. OHIKO ONDASUN ETA ZERBITZUEN  
EROSKETA.**

Hona hemen 2007ko ekitaldian aitorturiko betebeharren xehakapena:

Kontzeptua	2007an aitorturiko betebeharrak
Errentamendua	8.677,08
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	627.126,10
Materiala, homidurak eta bestelakoak	4.017.611,71
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordainak	100.829,58
Argitalpen gastuak	22.228,72
<b>Guztira</b>	<b>4.776.473,19</b>

2007an adjudikatutako kontratazio espediente bat berraztertu dugu. Hona hemen:

- Haur eskola zaintzeko zerbitzua kontratatzea: 269.764 euro.

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ez dela arauen ez-betetzerik gertatu. Gainera,

kontratu indardunen lagin bat hartuta, egiaztatu dugu ez dela luzapen bidez gairitzen lege indardunetan ezarritako epea.

**VI.3. INBERTSIOAK**

Hona hemen 2007ko ekitaldian aitorturiko betebeharren xehakapena, inbertsioen arabera:

Kontzeptua	2007an aitorturiko betebeharrak
Azpiegiturak eta erabilera publikoko ondasunak	20.771.913,40
Zerbitzuen funtzionamenduari loturiko inbertsioak	511.877,45
Inbertsio ez-materialak	13.384,03
<b>Guztira</b>	<b>21.297.174,88</b>

2007ko ekitaldian inbertsioen arloko adjudikazio garrantzitsuenak honakoak izan dira:

- Kaleei zoladura emateko kontratua, 124.800 euroko zenbatekoa egiten duena.
- Kultur etxea klimatizatzeako kontratua, 128.897 euroko zenbatekoa egiten duena.

Adjudikazio-espeditente horiek azterturik, ez dugu administrazio-kontratuei buruzko araudiaren arau-hausterik detektatu.

Halaber, Ardoi sektoreko urbanizazio-lanen gaineko kontratuaren jarraipena egin dugu –2005ean adjudikatu zen–. 2007an, kontratu horri lotutako gastuak 20.554.705 euro egin du. Ez dugu atzean araudiaren arau-hausterik.

#### VI.4. DIRU-SARRERAK.

Aitorturiko diru-sarrerak goitik baloratuta daude, hain zuzen ere 170.425,69 eurotan. Izan ere, akats baten ondorioz zenbateko horri zegokion deuseztatutako ordainagiri bati ez zitzaion baja eman, beste likidazio bat egin baitzen.

*Hona gomendioak:*

- *Diru-sarriren ordainagirien gaineko jarraipena dela-eta, barne-kontrola hobetzea eta indartzea, bereziki aldatetak egiten direnean.*

#### VI.5. INBENTARIOA-IBILGETUA

• *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri ondasunak– eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

• *Udal inbentarioa eguneratu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, zeinak erraztuko baitu hura etengabe eguneratuta eta kontabilitatean ibilgetuarekin lotuta egotea, eta lurzoruaren udal ondareari dagozkion ondasunak bereizirik jasotzea.*

#### VI.6. PATRONATUAK

• *Kultura eta kirol patronatuak udalaren zerbitzu deszentralizatu bihurtzeko aukera aztertzea, ez baitute ez instalazio ez langile berekirik.*

• *Funtsen xedapena baterako sinadurarekin egitea; bi sinadurarekin, gutxienez.*

#### VI.7. HIRIGINTZA

Zizur Nagusiko Udalak 2004ko urtarrilean onestitako udal plan bat dauka, aurreko hirigintzako legediaren arabera idatzia eta alderdi garrantzitsuenetan legedi berriari, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeari, egokitua

2007ko abenduaren 31n, Ardoi sektoreko urbanizazioko plan partziala baino ez da exekutatu ari. Urbanizazioaren azken fasean dago. Egiaztatua daukagu behin betiko harreraren akta badagoela. 2008ko maiatzaren 7ko data dauka.

Udalak ez ditu bereizirik kudeatzen ez eta erregistratzen ere lurzoruaren udal ondarearen osagaiak. Hala ere, diruzaintzako gerakinari buruzko egoera-orria aurkezterakoan, bertan jaso da baliabide atxikien egoera-orria, bai eta ekitaldian izandako mugimenduak ere.

• *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa sortzea, eta bertan jasotzea sartzen diren lurrak edo dirua, bai eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako xedeetarako justifikaturiko irteerak ere.*

Udalak aurkeztutako oroitidazkian jasotzen da ekitaldi honetan gauzaturiko hirigintzako jardueren xehakapena.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 1ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Tafallako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

Txosten exekutiboa edo laburpena (19. or.).

- I. Sarrera (20. or.).
- II. Helburua (21. or.).
- III. Norainokoa (21. or.).
- IV. Iritzia (22. or.).
  - IV.1. Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra (22. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (22. or.).
  - IV.3. 2007ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzario bateratua (22. or.).
  - IV.4. Comptos Ganberak aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (23. or.).
- V. Kontu oroko bateratuaren laburpena (24. or.).
  - V.1. Aurrekontuaren betetze-maila (24. or.).
  - V.2. Aurrekontu-emaizta (25. or.).
  - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (25. or.).
  - V.4. Egoeraren balantzea (26. or.).
- VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (27. or.).
  - VI.1. Alderdi orokorrak (27. or.).
  - VI.2. Administrazio-kontratazioa (27. or.).
  - VI.3. Inbentarioa-lbilgetua (28. or.).
  - VI.4. Hirigintza (28. or.).
- VII. "Ciudad Deportiva Tafalla, SA" sozietatea (28. or.).
- VIII. Karitateko Ama Birjinaren ospitalea fundazioa (31. or.).

Eranskina: 2007ko finantzen egoera-orri bateratuak.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

#### TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENEA.

Comptos Ganberak Tafallako Udalaren 2007ko ekitaldiari buruzko fiskalizazioa egin du. Tafallak 11.115 biztanle ditu.

Udalak, zerbitzuak emateko, hiru erakunde autonomo dauzka: Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua. Halaber, sozietate anonimo bat ere badu, "Ciudad Deportiva Tafalla" izenekoa.

2007an, Tafallako Udalak 13,4 milioi euro gastatu zituen eta 12 milioi euroko diru-sarrerak izan zituen. Kopuru horietan hiru erakunde autonomoen gastuak eta diru-sarrerak daude bilduta.

Gastuetan, honakoak nabarmendu behar dira: langileria- gastuak, 5,6 milioi euro; inbertsio-gastuak, 3 milioi euro, eta funtzionamendu gastuak, 2,6 milioi euro.

Diru-sarrerei dagokionez, transferentzia arruntek eta kapital-transferentziek 5,8 milioi egin zituzten, zuzeneko zergek 2,6 milioi, eta tasek eta beselako diru-sarrerak 1,7 milioi.

Kontu orokorra aztertuta, esan beharra dago gastuen eta diru-sarreraren likidazioaren irudi zintzoa adierazten duela, nahiz eta salbuespen batzuk badauden: ondasunen inbentarioa, 1993tik gaurkotu gabe dagoena; udal langileen pentsioen sistematik heldu diren betebeharrak kuantifikatu ez izana eta aurrekontu-aldaketekin lotutakoak.

Legezketasunari dagokionez, udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa arau indardunen arabera egin da.

Egoera finantzarioari dagokionez, 2007ko ekitaldia ixteko unean, udalaren aurrekontu-emaizta doitua 747.000 euroko defizita agertzen zuen. Zor finantzarioak, Kirol Hiriri dagokiona barne, 9 milioi euro egiten zuen.

Aurrezki garbia (gastu arrunten eta diru-sarrera arrunten arteko aldea) negatiboa da 2007an. Horrek adierazten du diru-sarrera arruntak ez direla nahikoak funtzionamenduko gastuak eta gastu finantzarioak ordaintzeko, eta Udalak bere zerga

nagusiak Toki Ogasunei buruzko Legeak ezarritako gehienekok mugan ordainarazten dituzenez, esan behar da, aurreko ekitaldietan bezala, halako zalantza bat dagoela etorkizunean zorraren bolumenari aurre egiteko baliabideak sortzeko Udalak duen ahalmenari buruz.

Horrenbestez, bideragarritasun finantzarioari buruzko plan bat onestea gomendatzen da, besteak beste, alderdi hauek ebalua ditzan: eman beharreko zerbitzuak, haien kostua, zerga-presioa eta gastua arrazionalizatzeko politikak.

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2007-12-31n
Udala	12.242.444	11.669.285	137
Udal Musika Eskola	462.160	230.018	18
Kultura Patronatua	413.652	22.776	5
Kirol Patronatua	310.123	78.231	11
<b>Guztizkoa, bateratua</b>	<b>13.428.379</b>	<b>12.000.310</b>	<b>171</b>

Udalak aipatu erakunde autonomoak sartzen ditu bere kontuetan, eta entitate hauetan parte hartzen du:

a) Mairagako Mankomunitatean, zeinaren bidez ematen baititu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendukoak.

b) Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatean, gazteen kirol-jarduerak nahiz gizarte eta kulturaren arlokoak egiteko.

Udalak hauetan ere parte hartzen du: Nafarroako Erdialdea garatzeko partzuergoan, eskualdeko Eraikinak eta Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoan (ORVE) eta Tafallako eskualdeko gizarte-zerbitzuen udalarteko elkartean.

“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” pertsona bakaurreko sozietatea da, eta Tafallako Udala da akziodun bakarra; 2001ean eratu zen.

Tafallak, gainera, Karitateko Ama Birjina Ospitalea fundazioa ere badu; haren xedea da zaharrentzako egoitza kudeatzea, eta kalifikazio juridikoa oraindik zehaztu gabe dauka.

Tafallako Udalarari 2007ko ekitaldian aplikatu zekioken araubide juridikoa, funtsean, hau izan da:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

## I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen –Udal Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua– 2007ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Tafallako udalerriak 98,3 kilometro koadroko hedadura eta 11.115 biztanle (2007ko urtarrilaren 1ean) ditu. 2007ko abenduaren 31n, udalaren eta bere erakunde autonomoen zifra adierazgarrienak honakoak dira:

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

- Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Foru Legea.

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Tafallako Udalaren aurrekontua betetzeko oinarriak.

- Udalak ordainarazten dituen zergak arautzeko ordenantzak.

Txostenak zortzi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren noraino-

koa eta, laugarrean, kontu orokorrari, legezkoa-sunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean, kontu orokor bateratuaren laburpen bat jaso dugu, eta, seigarren eta azkenean, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloka. Zazpigarrean eta zortzigarrean, "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." sozietatearen eta Karitatearen Ama Birjinaren Ospitalea fundazioaren kontuen laburpena jasotzen dugu.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2007ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Tafallako Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tafallako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Tafallako Udalaren 2007ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Tafallako Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoek 2007an aurrera eramandako jardueran.

c) Tafallako Udalaren eta haren mendeko erakunde autonomoen 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2006ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Tafallako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Honako osagaiak dauzka:

a) Entitatearen beraren eta erakunde autonomoen kontua (Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua).

b) Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta toki entitatearen eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakin bateratuak.

- Toki entitatearen eta haren erakunde autonomoen egoera-balantze bateratua.

Tafallako Udalaren 2006ko ekitaldiko aurrekontu orokorra alkatetzaren 2006ko abenduaren 29ko ebazpenaz luzatu zen; 2007ko ekitaldian ez da beste aurrekonturik onetsi.

"Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." merkataritza-sozietateak urteko kontuak egiten ditu; kontu horiek txostenari erantsiriko oroitidazkian daude, eta Udalaren ikuskatzaileak aztertu ditu.

Zaharrentzako egoitza-ospitaleko finantzen egoera-orriak ez dira Udalekoekin bateratu beharrekoak, fundazio bat baita. VIII. atalean, 2007ko ekitaldiko urteko kontuetan garrantzitsutzat jotzen dugun eta ikuskatu gabe dagoen informazioa aurkezten da.

Udalak eta haren erakunde autonomoek aplikaturiko kontabilitate-araubidea 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean araututa dago.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoiei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiboak

ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitatea eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak.

Txosten honetan daude Udalaren eta bere entitateen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko komenigarritzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

#### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2007ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

##### IV.1. UDALAREN 2007KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

- Funtsean 2007ko ekitaldian eginiko gastua kontabilitatearen ikuspuntutik erregistratzeko, Udaleko Osoko Bilkurak 2008ko urtarrilean 2007ko ekitaldirako aurrekontua aldatzeko zortzi espediente onetsi ditu guztira. Behin betiko kredituak 537.700 eurotan gehitzea suposatzen dute.

- Ondasunen inbentarioa 1993koa da, eta oraindik eguneratu gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren saldoa egiaztatzea; saldo hori, 2007ko abenduaren 31n, 26.786.601 eurokoa zen.

- Ez daude kuantifikatuta funtzionarioen pensio-sistematik ondorioztatutako betebeharrak.

Arestian aipaturiko salbuespenen ondorioak alde batera utzita, Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

##### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2007ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

##### IV.3. 2007KO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIO BATERATUA.

Gastuei dagokienez, aitorturiko betebeharrak 13.428.379 euro egin dute (9.964.967 euro 2006ko ekitaldian).

Langileria gastuek guztizkoaren ehuneko 42 egiten dute; inbertsioek, berriz, ehuneko 23; azkenik, gastu arruntek eta zerbitzuek ehuneko 20 egiten dute.

Diru-sarreretan, aitorturiko eskubide garbiak 12.000.310 eurokoak dira (11.174.687 euro aurreko ekitaldian).

Udalaren baliabideen ehuneko 48 transferentzia arruntetatik eta kapital-transferentzietatik dator, eta beste ehuneko 27 zerga zuzen eta zeharkakoetatik.

Ekitaldia ixtean, aurrekontuko emaitza doituak 746.766 euroko defizita zen (397.483 euroko superabita aurreko ekitaldian).

Gastu orokorretarako diruzaintza gerakinak 578.113 euroko saldo negatiboa agertzen du (2006ko ekitaldian ere negatiboa izan zen, 153.696 euro hain zuzen).

Aurrezki garbiak, aurreko ekitaldian bezala, 22.845 eurotan negatiboa izaten jarraitzen du (2006an 571.603 euro falta izan ziren). Horrek adierazten du diru-sarrera arruntak ez direla nahikoak izan funtzionamendu gastuak eta zor finantzariotik heldu den zama finantzarioa ordaintzeko; zor finantzario hori 2007ko abenduaren 31n 7.206.554 eurokoa izan zen, eta horri Kirol Hiriari dagokiona, 1.771.517 euro, gehitu behar zaizkio.

Azken batean, finantzen ikuspegitik, udalaren gaur egungo egoerak zalantzak pizten ditu zorraren zama finantzarioari aurre egiteko baliabideak sortzeko duen ahalmenari buruz. Gainera, azpimarratzekoa da Udalak gaur egun bere zerga nagusiak ordainarazten dituela Toki Ogasunei buruzko Legeak finkaturiko gehieneko muga ezarrita, hiri-lurraren kontribuzioaren kasuan izan ezik. Egoera hori dela-eta, beharrezkoa gertatzen da hurrengo ekitaldietarako bideragarritasun finantzarioari buruzko plana gaurkotzea eta onestea, honakoak aztertuko dituenak: eman beharreko zerbitzuak, haien kostua eta kostu hori herritarrei jasanaraztea, proiektu berriak, zerga-presioa, zorpetzeko gaitasuna eta gastua arrazionalizatzeko politika.

#### IV.4. COMPTOS GANBERAK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Oraindik ere bete gabe daude 2006. urteari dagokion txostenean egindako gomendio nagusiak; txosten honetako VI. atalean daude jasota.

## V.I. AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebehargarbiak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko
1 Langile-gastuak	5.625.100	5.847.100	5.604.907	96 %	5.503.378	98	101.529
2 Ondasunak eta zerbitzuak erostea	2.501.200	2.767.400	2.633.635	95	2.029.746	77	603.890
3 Finantza-gastuak	281.900	347.900	344.796	99	270.726	79	74.070
4 Transferentzia amuntak	467.200	533.000	498.782	94	291.255	58	207.528
6 Inbertsio errealak	0	8.507.000	3.044.115	36	1.612.966	53	1.431.149
7 Kapital-transferentziak	0	551.100	551.083	100	528.891	96	22.193
8 Finantza-aktiboen aldaketa	0	1.779.500	48.000	3	48.000	100	0
9 Finantza-pasiboen aldaketa	664.400	703.100	703.061	100	703.061	100	0
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>9.539.800</b>	<b>21.036.100</b>	<b>13.428.379</b>	<b>64</b>	<b>10.988.023</b>	<b>82</b>	<b>2.440.356</b>

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobratzeko
1 Zuzeneko zergak	2.698.800	2.698.800	2.639.421	98	2.460.639	93 %	178.782
2 Zeharkako zergak	1.513.800	1.513.800	640.837	42 %	345.461	54	295.376
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.109.300	1.550.900	1.708.511	110	1.499.047	88	209.464
4 Transferentzia amuntak	4.207.800	4.424.900	4.466.033	101	4.022.173	90	443.861
5 Ondarezko diru-sarrerak	328.600	328.600	307.534	94	231.660	75	75.875
6 Inbertsio errealak besterentzea	2.566.400	7.634.100	927.919	12	886.056	95	41.863
7 Kapital-transferentziak	3.118.700	8.527.200	1.310.054	15	322.298	25	987.756
8 Aktibo finantzarioak	0	356.600	0	0	0	0	0
9 Pasibo finantzarioak	0	4.800	0	0	0	0	0
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>15.543.400</b>	<b>27.039.700</b>	<b>12.000.310</b>	<b>44</b>	<b>9.767.334</b>	<b>81</b>	<b>2.232.976</b>



## V.2. AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	Aurreko ekitaldia	Itxiera-ekitaldia
Aitorturiko eskubide garbiak	11.174.686,65	12.000.310,49
Aitorturiko betebeharrak	9.964.966,96	13.428.379,52
<b>PRESUPUESTARIO AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>1.209.719,69</b>	<b>-1.428.069,03</b>
<b>DOITZEAK</b>		
<b>Finantzaioaren desbideraketa positiboa</b>	<b>1.003.536,42</b>	<b>397.136,43</b>
Finantzaioaren desbideraketa negatiboa	191.299,36	687.352,18
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	0,00	391.087,09
Merkataritzako eragiketen emaitza	0,00	0,00
<b>AURREKONTU EMAITZA DOITUA</b>	<b>397.482,63</b>	<b>-746.766,19</b>

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	Aurreko ekitaldia	Itxiera-ekitaldia	Aldea, %
<b>(+) KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK</b>	<b>2.766.149,66</b>	<b>2.623.021,37</b>	<b>-5,17</b>
+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	2.589.244,11	2.193.961,41	
+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	507.559,64	705.706,67	
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	26.519,58	54.875,45	
+ Ordainketen itzulketak	0,00	87,51	
- Bilketa zaileko eskubideak	352.309,36	328.134,36	
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	4.864,31	3.475,31	
<b>- ORDAINTZEKO DAUDEN ORDAINSARIAK</b>	<b>1.256.025,58</b>	<b>2.726.456,13</b>	<b>117,07</b>
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	962.743,45	2.437.695,12	
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	3.553,11	908,39	
+ Diru-sarreraren itzulketak	46.583,85	7.569,18	
+ Aplikatzeke dauden gastuak	100,00	100,00	
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	243.245,17	280.383,44	
<b>+ DIRUZAINZTAKO FUNTS LIKIDOAK</b>	<b>-583.911,38</b>	<b>-464.678,54</b>	<b>20,42</b>
+ Finantzaio-desbideraketa metatu negatiboak	282.252,96	596.284,60	111,26
<b>= DIRUZAINZTAKO GERAKINA, GUZTIRA</b>	<b>1.208.465,66</b>	<b>28.171,30</b>	<b>-97,67</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	971.074,97	606.284,57	-37,57
Baliabide atxikiaren diruzaintzako gerakina	391.087,09	0,00	0,00
Gastu orokometarako diruzaintzako gerakina	-153.696,40	-578.113,27	-276,14

## V.4. EGOERAREN BALANTZEA

## AKTIBOA

Deskribapena	Urteko zenbatekoa, itxieran	Aurreko urteko zenbatekoa
<b>A IBILGETUA</b>	<b>26.786.601,17</b>	<b>25.709.755,49</b>
1 Ibilgetu materiala	12.836.294,91	11.664.962,45
2 Ibilgetu ez-materiala	1.136.070,95	955.542,11
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0,00	0,00
4 Herri ondasunak	8.212,28	8.212,28
5 Ibilgetu finantzarioa	12.806.023,03	13.081.038,65
<b>B ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
6 Deuseztatu beharreko gastuak	0,00	0,00
<b>C ZIRKULATZAILEA</b>	<b>2.490.052,50</b>	<b>2.539.511,95</b>
7 Izakinak	0,00	0,00
8 Zordunak	2.954.631,04	3.123.323,33
9 Kontu finantzarioak	-464.578,54	-583.811,38
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak	0,00	0,00
11 Aplikatzeke dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0,00	0,00
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>29.276.653,67</b>	<b>28.249.267,44</b>

## PASIBOA

Deskribapena	Urteko zenbatekoa, itxieran	Aurreko urteko zenbatekoa
<b>A FUNTS BEREKIAK</b>	<b>19.340.068,27</b>	<b>19.078.662,37</b>
1 Ondarea eta erreserbak	3.963.643,76	4.274.395,54
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	42.558,03	453.583,18
3 Kapital-dirulaguntzak	15.333.866,48	14.350.683,65
<b>B ARRISKU ETA GASTUETARAKO PROBISIOAK</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
4 Homidurak	0,00	0,00
<b>C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>7.206.553,96</b>	<b>7.909.615,18</b>
4 Jasotako gordailuak, prestamenak, maileguak eta fidantzak	7.206.553,96	7.909.615,18
<b>D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>2.730.031,44</b>	<b>1.260.989,89</b>
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.726.556,13	1.256.125,58
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	3.475,31	4.864,31
<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>29.276.653,67</b>	<b>28.249.267,44</b>

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomen-dio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2007ko ekitaldiko aurrekontua (2006ko aurrekontuaren luzapena da) aldatzeko onetsi diren espedienteek 11.496.300 eurotan gainditu dituzte hasierako diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak.

Aparteko kredituen bitartez eta kreditu-gehigarrien bitartez eginiko aurrekontu-aldaketaren finantzaketa ez da kontzeptu horietarako aurreikusitako arauen arabera gauzatu.

- *Sarreraren aurrekontu-esleipenak zentzuzko aurreikuspenetara doitzea, bereziki eraikuntzen eta obren gaineko zergan (EIOZ)*

- *Aurrekontu-aldaketei buruzko espedienteetan kontrolak indartzea, kreditu handiagoen finantzaketarako erabiltzen diren baliabideen baliozkotasuna bermatzeko, eta behar diren prozedurak ezartzea, horien barne direla, behar izanez gero, kasuko argitalpena, espediente horiek kasuan kasuko ekitaldiko abenduaren 31a baino lehen amai daitezen.*

- *Prozedura batzuk ezartzea hurrengo ekitaldiko martxoaren 1a baino lehenago onesteko udala-*

*ren eta erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioari buruzko espedienteak. Azken kasu horretan, aurrena organo eskudunak onetsi beharko ditu aurrekontu horiek.*

- *Aurrekontuaz kanpoko zordunen egoeran erregistratzea diruzaintzako kredituaren kontua, zeina 2007ko abenduaren 31n eta 633.985 euroko saldoarekin, erantsitako aurrekontu-likidazioan aurkezten baita, diruzaintzako gerakinaren funts likidoak gutxituz.*

- *Oroitidazkian informazio gehiago sartzeko kreditu-kontuaren mugari buruz eta erabilitakoari buruz.*

- *Plantilla langileria-beharrizanei egokituta ote dagoen jakiteko azterlan bat egitea, honakoak ikertuko dituenak: plantilla arrazoizkoa ote den, lanpostu bakoitzeko lan-zama eta kasu bakoitzeko ordainsari-mailak.*

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jartzeko, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

### VI.2. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal honetan xehakaturik agertuko ditugu, alde batetik, ondasun arruntak erosteari eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

#### VI.2.1. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

Espediente hau aztertu da:

	Kontratu mota	Prozedura/Adjudikatze-irizpideak	Adjudikazioaren zenbatekoa
Laguntza kontratua Tafallako haur eskolan jantokiko zerbitzua emateko.	Laguntzarako kontratua	Irekia, Europan publizitaterik egin gabe / eskaintza onena	138.600

Horiek aztertuta, ondorioztapena da aztertutako espedienteak legeak eskatzen duenari jarraikiz izapidetu dela.

Bestalde, 2007ko ekitaldian ez da egin 2006ko txostenean kale-argiteria berrikusteko eta mantentzeko zerbitzurako gomendatu zen kontratazio-prozesua. Haren gastua 46.512 eurokoa izan da.

- *Gomendatzen dugu kale-argiteria berrikusteko eta mantentzeko zerbitzurako kontratazio-prozedura egokia egitea, arlo honi buruz foru-araudiak xedatutakoari jarraiki.*

#### VI.2.2. Inbertsioak

Espediente hau aztertu da:

	Kontratu mota	Prozedura/Adjudikatzeko irizpideak	Adjudikazioaren zenbatekoa
Tafallako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko I. banaketa-eremuaren urbanizazio proiektuko obren kontratua.	Obra	Irekia, Europako mugatik gaindi / eskaintzarik onena	14.188.489

Hura aztertuta, ondorioztatzen a izapidetzea eta adjudikazioa lege ezarritakoaren arabera egin direla.

### VI.3. INBENTARIOA-IBILGETUA

- *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri ondasunak– eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *1993ko udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitze-sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin lotuta egotea ziurtatzeko.*

*Kontuan hartu behar da Udalaren lurzoru-ondarea gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

- *Ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeko eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Kirol-hiria eraiki den lur-sailak, zeinak Udalaren jabetzakoak baitira, lagatzeko akordioa formalizatzea.*

### VI.4. HIRIGINTZA

Tafallako Udalaren Antolamendu Plana 1994an onetsi zen.

2006an, “Tafallan indarrean den planeamendu orokorra homologatzeari buruzko azterlan metodologikoa” egin zen. Gaur egun arte, ez da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea ez berrikusi, ez eta homologatu edo egokitu ere.

Udalak aurkezturiko oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzaturiko hirigintza-jarduerak zehazten dira.

*Hona gure gomendioak:*

- *Hirigintza-plangintza LFOTUren zehaztapenetara moldatzea.*

### VII. “CIUDAD DEPORTIVA TAFALLA, S.A.” SOZIETATEA

“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” pertsona bakoarreko sozietatea da, eta Tafallako Udala da haren akziodun bakarra; 2001ean eratu zen, kapital soziala 300.000 eurokoa zela. Kapital sozial horretan, bost kapital-gehikuntza egin dira, guztira 13.617.000 euro egiten dutenak.

2007ko ekitaldiko urteko kontuak, Udaleko kontu-hartzaileak berrikusitakoak, Udaleko Osoko Bilkurak 2008ko ekainaren 30ean eginiko Osoko Bilkuran onetsi ziren, bera baita sozietate horretako Akziodunen Batzar Nagusi gisa diharduena.

Ganbera honek fiskalizatu gabeko 2007ko eta 2006ko abenduaren 31ko egoera-balantzeek eta galeren eta irabazien kontuek —urteko kontuetan sarturik daude— honako saldoak agertzen dituzte:

<b>AKTIBOA</b>	<b>2007</b>	<b>2006</b>	<b>PASIBOA</b>	<b>2007</b>	<b>2006</b>
<b>Ibilgetua</b>			<b>Norberaren fondoak</b>		
Establezimendu-gastuak	57.152,94	86.265,89	Kapital gastuak	13.917.000,00	13.917.000,00
Eraikinak	15.333.899,27	15.333.899,27	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	839.323,47	512.847,88
Lanabesak	1.175,10	1.175,10	Ekitaldiko galerak	323.015,62	326.475,59
Bestelako instalazioak	229.693,21	187.427,43	Zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerak	91.356,03	104.265,03
Altzariak	2.236,40	2.236,40	Hartzekodunak	1.771.516,58	1.787.079,84
Amortizazio metatua	1.029.557,78	702.606,95	Epe laburreko hartzekodunak	51.890,61	748,14
<b>Aktibo zirkulatuak</b>					
Zordunak	6.144,47	228,79			
Interesak e/ E <sup>a</sup> grupo.	61.567,82	61.132,66			
Diruzaintza	7.112,70	10,95			
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>14.669.424,13</b>	<b>14.969.769,54</b>	<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>14.669.424,13</b>	<b>14.969.769,54</b>

Udalak bere gain hartu ditu finantza-gastu guztiak (84.568 euro) sozietateak kontratatuta daukan kreditu-kontutik.

ZOR	2007ko EKITALDIA	2006ko EKITALDIA	HARTZEKOA	2007ko EKITALDIA	2006ko EKITALDIA
<b>A) GASTOS ( A1 - A15 )</b>	<b>369.912,24</b>	<b>369.369,45</b>	<b>B) DIRU-SARRERAK ( B1 - B8 )</b>	<b>46.896,62</b>	<b>42.893,86</b>
<b>A3 Ibilgetua amortizatzeko zuzkidurak</b>	<b>356.063,78</b>	<b>354.874,83</b>	<b>B1. Ustiapeneko diru-sarrerak:</b>	<b>33.987,37</b>	<b>29.984,50</b>
680. Ezartzeko gastuen amortizazioa	29.112,95	29.112,95	a) Negozio-zifren zenbateko garbia	33.987,37	29.984,50
682. Ibilgetu materialaren amortizazioa.	326.950,83	325.761,88	700. Salgaien salmenta	19.587,37	19.184,50
<b>A5. Bestelako ustiatze-gastuak</b>	<b>9.586,24</b>	<b>10.546,54</b>	701. Bukatutako produktuen salmentak	14.400,00	10.800,00
622. Konponketa eta kontserbazioa	2.995,10	0	b) Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk	0	0
623. Profesional independenteen zerbitzuak	5.988,44	5.633,16	<b>B1. USTIATZEAREN GALERAK ( A1 + A2 + A3 + A4 + A5 - B1 )</b>	<b>331.662,65</b>	<b>335.436,87</b>
626. Banku zerbitzuak eta antzekoak	182,83	4.454,50	<b>B2. Diru-sarrera finantzarioak</b>	<b>0,25</b>	<b>0,36</b>
628. Hornigaiak	396,53	413,1	a) Taldeko enpresetan	0	0
629. Bestelako zerbitzuak	23,34	45,78	c) Beste batzuk	0,25	0,36
<b>AI. USTIATZEAREN ETEKINAK ( B1 - A1 - A2 - A3 - A4 - A5 )</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	7690. Euroaren biribiltzeen ondoriozko aldeengatiko diru-samerak	0,25	0,36
<b>A6. Finantza gastuak eta antzeko gastuak</b>	<b>4.262,22</b>	<b>3.948,08</b>	<b>BII. FINANTZA-EMAITZA NEG. ( A6 + A7 + A8 - B2 - B3 )</b>	<b>4.261,97</b>	<b>3.947,72</b>
a) Taldeko enpresekiko zorreatatik	4.262,22	3.948,08	<b>BIII. JARDUERA ARRUNTENGATIKO GALERAK ( B1 + BII - AI - AII )</b>	<b>335.924,62</b>	<b>339.384,59</b>
6620. Taldeko enpresen epe luzeko zorreatatik interesak	4.262,22	3.947,33	<b>B6. Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapital-subentzioak</b>	<b>12.909,00</b>	<b>12.909,00</b>
6630. Taldeko enpresen epe laburreko zorreatatik interesak Taldea	0	0,75	<b>BV. ZERGEN AURRETIKO GALERAK ( BIII + BIV - AIII - AIV )</b>	<b>323.015,62</b>	<b>326.475,59</b>
<b>AII. FINANTZA-EMAITZA POSITIBOAK ( B2 + B3 - A6 - A7 - A8 )</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>BVI. EKITALDIKO EMAITZAK, GALERAK ( BV + A14 + A15 )</b>	<b>323.015,62</b>	<b>326.475,59</b>

**VIII. KARITATEKO AMA BIRJINAREN OSPITALEA FUNDAZIOA**

Katitatego Ama Birjinaren Ospitaleko Administrazio Batzarrak, 2008ko abuztuaren 5ean, 2007ko kontuen itxiera onetsi zuen.

20067o eta 2006ko ekitaldietako egoerari buruzko balantzearen xehetasunak –oraindik ere ez da ekitaldi horien auditoriarik egin– ondoren datorrena da:

AKTIBOA	2007	2006	PASIBOA	2007	2006
Ibilgetu materiala	1.118.165	726.194	Gizarte funtsak	307.644	307.644
Aktibo zirkulatzailea	2.089.864	2.106.140	Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak	(175.933)	(144.583)
Zordunak	1.910	253	Ekitaldiko soberakina	19.784	(31.350)
Aldi baterako finantza-inbertsioak	2.045.000	2.063.279	Zenbait ekitalditan banatu beharreko dirusarrerak	2.568.938	2.593.654
Diruzaintza	42.954	42.608	Epe laburreko hartzekodunak	487.596	106.969
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>3.208.029</b>	<b>2.832.334</b>	<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>3.208.029</b>	<b>2.832.334</b>

Ospitaleak lanaldi osoko hamabi langile finko ditu, eta lanaldi erdiko bederatzi.

	2007	2006	DIRU-SARRERAK	2007	2006
Ustiapen-gastuak	1.018.958	980.852	Ustiapeneko diru-sarrerak:	949.034	920.591
Ustiapeneko kontsumoak	198.440	173.865	Negozioen zenbateko garbia	939.701	917.207
Langile-gastuak	644.171	612.166	Ustiapeneko beste diru-sarrerak	9.333	3.384
Amortizaziorako zuzkidurak	24.716	24.756			
Bestelako ustiatze-gastuak	121.201	141.100			
Jarduerarako homiduren aldaketak	3 0.430	28. 965			
<b>I. USTIATZEAREN ETEKINA</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>I. USTIATZEAREN GALERAK</b>	<b>69.924</b>	<b>60.261</b>
Finantza-gastuak eta antzeko gastuak	405	48	Diru-sarrera finantzarioak	65.298	4.203
<b>II. FINANTZA-EMAITZA POSITIBOA</b>	<b>64.893</b>	<b>4.155</b>	<b>II. FINANTZA-EMAITZA NEGATIBOA</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>III. JARDUERA ARRUNTENGATIKO ETEKINA</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>III. JARDUERA ARRUNTENGATIKO GALERAK</b>	<b>5.031</b>	<b>56.106</b>
Ezohiko gastuak	68	-	Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapital-subentzioak	24.883	24.756
<b>IV. EZOHICO EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>24.815</b>	<b>24.756</b>	<b>IV. EZOHICO EMAITZA NEGATIBOAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>V. ZERGEN AURRETIKO ETEKINAK</b>	<b>19.784</b>	<b>-</b>	<b>V. ZERGEN ONDOTIKO ETEKINAK</b>	<b>-</b>	<b>31.350</b>
<b>VI. EKITALDIAREN EMAITZA ETEKINA</b>	<b>-</b>	<b>19.784</b>	<b>VI. EKITALDIAREN EMAITZA GALERA</b>	<b>-</b>	<b>31.350</b>

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

---